



Gipuzkoako Bertso Eskolen I. Egunean festa bilakatu dute bertsoa Villabonan

200 ▶ Gipuzkoa osotik etorritako 30 eskolatako 200 bat haur eta gaztek hartu zuten parte atzo

SAIO BEREZIA ▶ Gurean izan zen bazkalostean Elustondo, Peñagarikano eta Gaztelumendirekin ▶ 3



Bertsolari gazteek kantatutako doinuei erritmoa jarri zieten Oinkariko dantzariak atzo goizean. IMANOL GARCIA



IÑIGO TERRADILLOS

Futbola aitzaki hartuta, egun osoko jaia atzokoa

TOLOSA ▶ Tolosa Kup festaren baitan, 3-1 irabazi zieten ibartarrek tolosarrei; bazkaria egin zuten makina bat lagunek Abastosen ▶ 5



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Goi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemaren Administrazioa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 8ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idadzaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



TOLOSALDEKO ETA
LEITZALDEKO
ATARIA SAREAN

www.tolosaldeko-hitza.info

Edizio jarraitua

Eztabaida

Agenda Inkesta

Papereko edizioa...



LANDARRI, S.L

Hilerriren ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estampaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - TOLOSA

Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa, 9 behe -ORRETA- ERRENTERIA

Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41

www.landarri.com • landarris.l@terra.es

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Damuaren mamua



Agian damutu egingo naiz... baina damuaz hitz egin nahi dut. Amonak beti esaten zuen: egindakoaz damutzea hobe da ez egindakoaz damutzea baino. Amonak esapide egokiak zituen, korrektoak, atseginak, jakintsuak... baina ez dut uste denak zuzenak zirenik. Su baiuari indarra joaten zaion moduan joan zaio indarra hainbat esaera zaharri.

Ni ez egin izan hartaz naiz damu. Egin beharrekoa ez egitearen damu. Egindakoaz ere damu, beraz. Egin beharrekoaren

ordez beste zerbait egin nuen seinale. Ez dut ezer txarrik egin. Ez dut ezer onik egin. Damu den buruak ibili behar gorputz horrekin. Damu den burua burumakur dabil, kopetilan, begirada iheskor eta irribarre fosildun aurpegia aurretik duela. Gorputzak aurrera darama, begiradak atzera, buruak damura.

Damuaren mamua zorigaitzaren amua da. Damutzeak barkamenak adina balio al du? Balio agian bai, baina konponbide bera al dakar? Ez dut uste. Barkamena eskatzeko sekula ez omen da berandu. Damutzeko, ordea, berandu izan daiteke.

Damu poltsikoan baneuka ez nuke dirurik beharko. Eskura izango nuke ibaira botatzeko, sutan erretzeko, edo besterik gabe norbaiti benetan damu bat dudala

erakusteko. Baina damua barruan dut, aterabiderik eta zirrikiturik ez duen kaio-la itxian. Liberatzeko antsian, jarrera etsian.

Kontzientzia lasai dut, halaber. Batzuetan aurrera egitea atzera jotzea da. Irageanean utzi edo galdutako lagun nahiz egunek mamutik damutik baino gehiago izan dezakete. Lozorroan egon den mamua lotan zaudenean esnatzen da noiznahi, gauzatu gabeko ametsen erreparosoa egiten dizu ametsetan agertzen den aldiro.

Damutze maila desberdinak daude, eta eskerrak horri. Gaur goizean egunkaria zabaldu izanaz damutu naiz. Epaitegieta-koko mamuek ez dute damuaren kontzientziarik. Ez eta egiten ari direnaren kontzientziarik.

GUTUN@K ▶

Zer iruditzen herri kontsultak egitea?

Nere ustez herri batentzako erabaki guztiz garrantzitsu bat hartzeko orduan udalbatzarrak ados jarri ez edo ezberdintasun handiak izaten direnean egin behar dira galdeketak. Gai garrantzitsuekin bakarrik eta beste aukerarik ez dagoenean, jendea mobilizatu eta motibatu dadin —Leitzan izan den abstentzioa lotsagarria da, adibidez—.

AGIRRE ▶

Zinez herriaren iritzia jaso nahi bada, bide egokia iruditzen zait, ez baita aski lau urtetik behineko demokrazia estilo hau. Dena den, gaiaren garrantzia da inportanteena, eragin eremua handia denako erabili beharko litzateke —harrobiak, esaterako, berebiziko garrantzia du herri osoan eragin zezakeelako—.

IZENIK GABE ▶

Kontsulta tresna baliagarria dela uste dut.

INMA ▶

Leitzarango autobiak zer iritzi duzu?

Tolosak azken urteetan kalegiroa galdu du. Azken urteetan euskaldunon bizimoduaren pentsamolde aldaketa bat dago: txikiteoa erabat desagertzen, lagunarteko afariak janari azkarrarekin aldatzen, azokak ixten edo merkatalguneetan moldatzen ari dira... Onerako edo txarrerako errealitate bat da. Beraz, erru gutxiago autobiari. Imaginatu A-15a beharrean N-1 dela: imaginatzen dituzue gauero errepede zahar horiek Illunbera berebiez doazen gazte tolosarrez beteta? Ba hori, autobiak beharrezkoak dira; euskaldunok hartu dugun bizimoduarentzat oinarritzkoak.

AGIRRE ▶

Bada eskualdeko sektore handi bat berrikuntza honen aurka buru-belarri aritu zena. Beste asko, gehienak, aldekoak ginen. Orain ikusten da beti ezezkoa ematea ez dela biderik egokiena. Autobiak segurtasuna, erosotasuna eta mila abantaila ekarri dizkigu. Zenbaitetan, aurrera joateko atzean beste gauza asko utzi behar dira.

IBARRA ▶

ANOETA - IBARRA ▶ JAIAK

IÑIGO TERRADILLOS
IMANOL GARCIA

Anoetako herri jaiak azken txanpan daude dagoeneko. Atzokoan eguraldia zertxobait goibeldu bazen ere, festarako gogoak irauten zuen. Udalak antolatutako egitarauan haurrak izan ziren beste behin protagonista nagusiak. Goizean xake txapelketa arrakastatsua egin zuten plazan, 29 gaztetxoren parte-hartzearekin. LH1 eta LH2ko mailan, Lide Aranzabe izan zen txapeldun eta LH3tik gorakoan mailan, Oihana Etxenike. Arratsaldean ere izan zituzten hainbat ekitaldi.

Herri borondatearen aldekoetan Gazteen Eguna zen atzokoa. Baserritarrez jantzia, triki-poteoarekin abiatu zituzten ekitaldiak, geroko afaria, herriko plazako dantza emanaldia eta kontzertuekin amaitzeko. Gaurko egitarauan aldaketa txiki bat egongo da, izan ere, Antiguoko Txikito izango baita gauean ariko den umorista.

Bestalde, gaur amaituko dira Ibarako San Inazio auzoko udaberriko jaiak. Atzokoan gaztetxoak izan ziren protagonista goizetik; haur jaialdian ederki igaro zuten txikiek eta arratsaldean txokolata jatea egin zuten. Nesken futbol txapelketa ere izan zen ikusgai; amaitzean herenegun jokatu-takoen eta nesken finalak izan ziren, eta, ondoren, sari banaketak. Gaurkoan, izango diren ekitaldien artean, 12:30ean egingo den San Inazio auzoaren inaugurazio ofiziala aipatu behar da; txarangak, trikitalariek eta bertsolariak alaituriko herri-bazkaria izango da eta 18:30ean emango zaie jaietako amaiera petardo sortarekin.



Haurrek ederki igaro zuten San Inazio auzoan elkarri globoak lehertuz —goiko argazkian—; Anoetan xake txapelketa egin zuten gaztetxoek eta arratsaldean gazteak kalejiran aritu ziren. I. TERRADILLOS - I. GARCIA

Festetan, azkeneko momentura arte

Anoetako herri jaietan azken egunak aprobetxatzen ari dira; gaur izango da Ibarako San Inazio jaietako azken eguna ere

VILLABONA ▶ BERTSO ESKOLEN EGUNA

Bertsoaren festa ospatu dute hainbat haurrek eta gaztek

Gipuzkoako 30 bertso eskolak beren lehen eguna antolatu zuten atzo herrian

IMANOL GARCIA

Bertsoa festa bihurtu zuten atzo Villabonan. Bertso Eskolen Lehen Eguna ospatu zuten Gipuzkoa osotik etorritako 30 eskola inguruko 200 bat haur eta gaztek. «Bertsoaren mundura gerturatzen ari direnek, eta dagoeneko ibilbide txiki bat soinean dutenek elkar hobeto ezagutzeko» helburuarekin egin dute, eta antolatzaileak gustura gelditu dira, parte-hartzaileak bezala.

Goizean goiz bildu ziren Errebote plazan bertso eskoletako kideak. Bertan kamisetak banatu zitzaizkien, kolore anitzetakoak, Bertso Eskolen Eguna leloarekin. Ondoren, parte-hartzaile guztien argakia atera zuten eta jolasei ekin zieten.

Errebote plazakoak egin eta gero, Gurea antzokira joan ziren tropelean. Han egin zuten eguneko ekitaldi nagusia. Bertso eskola bakoitzak beren saioa prestaturik, banan-banan joan ziren bertsoak kantatzen. Gaztetxoenetik nagusienetaraino, denek kantatu zituzten beren koplak. Batzuk trikitiarekin lagundurik, beste batzuk antzerki txikiak eginez. Denek, baina, erakutsi zuten mikrofonoari ez ziotela beldurrik, abestu beharrekoak zenbaitetan eskuan zeukaten papertxoarekin gogoratu behar izan bazituzten ere. Villabonako eskolakoei ekitaldi berezia egin zuten: lagun taldea kantari trikitiaz lagundurik eta bi dantzari beren trebetasuna erakusten. Agurrak egin aurretik —tartean Asteasuako eta Zizurkilgo eskolakoei hartu zuten parte—, eskoletako mutil nagusienak oholtza gainera igo ziren eta ederki asko, bat-bateko saioa burutu zuten.



Errebote plazan bildu ziren goizean bertso eskoletako ikasleak eta irakasleak. I. GARCIA



Unai Gaztelumendi, bere laguntzaileekin: Nerea Elustondo eta Anjel Mari Peñagarikano. I. GARCIA

Bazkaldu eta jolas batzuk egin ondoren, arratsaldean saio berezia izan zen Gurean. Nerea Elustondo legazpiarrena eta Anjel Mari Peñagarikano anoetarraren bertsoak entzuteko aukera izan zen. Berezi-

tasuna Unai Gaztelumendi añogarrak jarri zuen. Bertso eskolako ikasle, gai jartzen aritu zen eta baita marrazkiak egiten ere bertsolariet abesten zutena islatuz. Horrekin eman zitzaion amaiera egunari. Elkar

berriz laster ikusiko dute, ekainaren 2an, Gipuzkoako Bertso Eskolen Txapelketa egingo baitute Kursaal. Baina orduan, festa izango bada ere, parte-hartzaileek beste modu batera biziko dute giroa.

TOLOSA ▶

Giro alai atzoko azokan goiz osoan bizitakoa

Produktu batzuetan nabaritu egin zen aste honetako beroaren eragina

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka alai hasi zen goizean goizetik. Izan genuen eguraldi freskoak lagundu egin zuten giroa eta salmentak piztuzeko, jendea erosketak egitera goiz osoan zehar gerturatu baitzen.

Eskaintza ere zabala izan zen. Produktu batzuetan, ordea, nabaritu egin zen aste honetako beroaren eragina. Zizek, adibidez, pitin bat behera egin zuten, eta, dirudienez, datozen asteetan horrela jarraituko dute. Barazki zerranda, berriz, ez zen aldatu, eta prezioak bere horretan mantendu ziren. Aipatzekoa zen, baita ere, produktuon freskotasuna eta kalitatea.

ATZOKO AZOKA ▶

Burdura plaza merk. gares.

Landareak		
Pensamientoa	1,00	-
Geranioa	1,90	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbotia	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

Bertakoak

Onttoa	24,00	25,00
Ziza	15,00	34,00
Ziza horia	20,00	-
Ahatea	2,50	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Ilarrak	7,00	9,00
Ardi gazta	12,00	14,00

Ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Arroza	1,90	2,00
Aza	2,50	3,00

CITROËN, IBILGAILU INDUSTRIALETAN LIDERRA



CITROËN
C15 1.9D FURGONETA
8.900€tik **2.600€ ko aurrezpena**



CITROËN
BERLINGO
9.650€tik **3.300€ ko aurrezpena**



CITROËN
JUMPY
14.250€tik **3.000€ ko aurrezpena**



CITROËN
JUMPER
15.350€tik **4.000€ ko aurrezpena**

Etor zaitez ikustera:

IROVI S.A Citroën Konzesionario Ofiziala
Anoeta Industrialdea z/g • 20270 ANOETA
Tel.: 943 65 18 42 • irovisa@citroenet-es.net

«Bide luzea egin dugu gure Lanbide Heziketa Europako onenen artean jarri arte»

Lanbide Heziketako Euskal Plana (2004-2007) bide luze baten azken urratsa izan da. Hura martxan jarri ondoren, pozik dago **Anjeles Iztueta** –Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua–, Lanbide Heziketa enpresaren eta gizartearen premietara egokitu duelako.

Lanbide Heziketako gaztea. LH gaztea

LH «Neskari ere bada ikastaro horietan»

IKASLEA: Yohana Zuazo
Proiektu Mekanikoen Garapena ikasten da



«Proiektu Mekanikoen Garapena ikasten da Mekanika betidanik gustatu zait; horregatik hasi nuen ikasketak hasi. Urmetatik gustatu izan zait garazak diseinatzea. Nire ustez, lanbide horietan jarduteko indar handia behar dela eta beti oso zikinak dituzten gurela uste dutelako ez dira matrikulatzen neska asko eta asko. Ikasten ari naizena oso gogoko dut, matrikia bidez ere, eta gainera lana aurkitzeko aukera ugari ditut.»

LH «Eragabeko trebakuntza»

IKASLE OHIA: Erlantz Biderbost
Fotografia, Diseinua eta Ikus-entzunerkoak ikasi zituen (goi-mailako zikloa)



«Ikus-entzunerkoen alorra, inadiarena, betidanik gustatu zait. Horregatik hasi nuen ikasketak hasi. Horri esker, publizitate-argazkilaria naiz, eta oso gustura nabil lanean. Ikasten ari nintzela fikatu nintzen orain lanbide dudaren onariari. Nolanahi ere, lehiakor izateko, inoiz ere ez zaio ikasteari utzi behar. Ikasitako eguneratu behar izan dut eta fotografia digitalaren nondi-norakoak ikasi.»



CD. CME. VITORIA-GASTEIZ

– Egun gutxi berria ireriko da Lanbide Heziketaren aurrematrikulazioak egiteko epea. Nola animatu zulantzan daudenak?

– Bi arazoirengatik animatuko nituzke. Batetik, lanpostu askotarako sarbidea emango dielako Lanbide Heziketari, hau da, lanpostu horietarako eskatzen diren jakintza eta trebakuntza; bestetik, LH hautatzeak ez dielako beste inongo aukerarik murrizten. Hots, LH amaitutako unibertsitateko joan nahi badute, zabalik daude horietarako ardea.

– Baina gizarteak LHrekin zeukan jarraera ere aldatu ote da?

– Aldatzen ari gara. Duela urte batzuk, 1980ko hamarkadan, bazirudien besterik egin ezin zezaketen ikasleek hasi nuzela Lanbide Heziketa. Gaur egun, oso ongi dabil LH. Bide luzea egin dugu Lan-

bide Heziketaren ikuspegi berria –modernoagoa eta eraginkorragoa– iritsi arte. Ibilbide horri esker, Europako hobereenen artean jarri dugu EAeko Lanbide Heziketa.

– Ez zen, dena den, bide erraza izango...

– Arrazoi duzue ez da batera erama izan. LHren ezaguerietako bat da enpresatik oso hurbil aritzen dela. Hurbiltasun hori dela eta, erne ibili behar izaten dugu prestakuntza eguneratzean. Enpresek bezain azkar eboluzionatu beharra daukagu; batzuetan, gainera, haiei aurretik ere ibili behar dugu. Ikaragarri azkar gertatzen dira aldaketak produktzio-sisteman. Gure enpresek gero eta gogorrago behatu behar daukate urratiko herrialdeekin (Txina, Malaysia...). Hozaz, etorkizuneko langileen prestakuntzaren mende dago gure lehiakortasuna.

– Estatistikek diotenez, lanbide bultzak gehienbat neskek dituzte gogoko; beste batzuetan, aldiz, apenas dabilen emakumezkoak.

– Oraindik ere ez dugu erabat lotu neskek ere sektore industrialera jotzea. Sektore «klasikoetara» jotzen dute oraindik ere gehienek (merkataritzan, administrazioan, ile-apaintzetan...). Sektore bikainak dira horiek ere, eta lanpostu asko sortzen dute, baina ez dira bakarrak. Izugarriko aukerak ari dira sortzen hainbat produktzio-sektoretan, ongi prestatutako langileen premia baitaukate. Sektore horietan ere proba egitea animatzen ditut ikasleak, gizartearen-aztertzat garrantzi handiko eginkizunetan aritzeaz gain, gustura, oso gustura lan egiteko aukera izango dute eta.

– Zer trebakuntzak eskaintzen du lan munduan sartzeko aukera gehien?

– Ikasleek % 90ek edo aurkitzen du lana. Eskaintzen ditugun ikasketak askotan, berriz, % 90-100 ikasleek aurkitzen du lana, bai industriaren sektorean bai zerbitzuetan. Adibidez: administrari-ikasketak egiten dituztenen % 72k aurkitzen du lana; informatika ikasten dituztenak, % 89,9k; produktzio-zerbitzuetako mantentze-lanetan, berriz, % 100ek; jarduerak fisikoan eta kirolan, % 94k baino gehiagok...

– Zer lehenbizi izango ditu gero, zure iritziz, Lanbide Heziketak?

– Eragabeko trebakuntzaren bidezko aurrerapena segitu behar dugu. Gero eta azkarago ari dira gertatzen aldaketak, gero eta lehiakortasun gogorragoak dituzte gure enpresek... Hozaz, gero eta prestagoa egon behar dute gure garteak.

«Izugarriko aukerak ari dira sortzen hainbat produktzio-sektoretan, ongi prestatutako langileen premia baitaukate»

Lanbide Heziketa: datuak

Lanbide Heziketako ikaslearen bilakaera Heziketa-zikloen arabera*



Ikasturte	Eri-maila	Goi-maila	GUZTIRA
1997/98	3.987	6.684	10.671
1998/99	4.437	10.927	15.364
1999/00	10.169	11.954	22.123
2000/01	10.898	18.001	28.899
2001/02	11.898	18.278	30.176
2002/03	11.203	18.676	29.879

Lehenbizi-egitura bilaketa dago LHn Gure Matrika Prestakuntza Zikloan



Lanbide Heziketaren kalitatea

LHn 2 ikasturteko **Urretxo Q** a dute
LHn 19 ikasturteko **Zilaretxo Q** a dute
38 ikasturteko **ISO 9000** Zuztegia lortu dute

14 ikasturteko **EFQM 300** puntuak eskuratu dituzte
Ikasturteko **ISO 14000** lortu du
ISO 14000 lortzeko **Ikasturteko** lehen dute 30 ikasturte



2004-2007ko
Lanbide Heziketako Euskal
Planaren aurrekontua
806.768.289 eurokoa da guztira

Lan-merkaturako sarbidea*

Enplegu-tasa % 80,8koa da
– % 5,5 arazo berrak lehen haldin da lanetan, eta % 45 arazo eta berrak.
– % 94k lan egin da ikasketan ari diren eta hurrengo urtean.
– Neska ikasketan enplegu-tasa % 8 hartu da.
– Lana aurkitzeko bidez besteko dirubeta 2,3 hilabete da.

2004ko langabezia-datuak (INEM)

– % 15 unibertsitatean.
– % 8 14k.

* LH Egutegian ikasleak. Lan eta Zuzenbidearen Nazioarteko erakundearen arabera.
Lanbide Heziketako 2004ko aurrekontuaren arabera lan-merkaturako sarbidea.

GIZARTEA ▶

Argindarra moztuko dute bihar goizean

Tolargik bere bezeroei jakinarazi nahi die «eskaintzen diegun zerbitzua hobetzeko lanak direla-eta» argindarra moztuko dutela bihar goizean, 08:20ak eta 12:30ak bitartean, Tolosako Korreo kaleko 52, 54, 56, 58, 60, 62, 64 eta 66 zenbakietan.

GIZARTEA ▶

Euskal Bizikleta dela-eta aldaketa ugari herrian

Euskal Bizikletako bigarren etapa Sopelan hasi eta Tolosan amaituko da, eta hori dela-eta aldaketak izango dira herrian. Asteazkenean, ekainak 1, esaterako, ezin izango da apartatu 19:00etatik osteguneko 19:00etara San Frantziskoen, Leidor aurrean, eta San Inazio kalean; podium-a, telebista tresneria eta antolakuntzako instalazioak jarri behar dituztelako.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarzan autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA KUP ▶

Egun osoko festa, atzokoa

Futbola aitzaki hartuta, lagunarteko giroa izan zuten Tolosa Kup-en babesleek



Tolosarrak eta ibartarrak, atzo goizean, Berazubín, partidua amaitutakoan. Ibarroko jokalariek 3-1 irabazi zieten Tolosakoei. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa Kup festa izan zen atzo. Goizean Berazubi futbol zelaiaren partida interesgarria izan zen ikusgai. Ibarrokoen eta Tolosakoen artekoa, hain zuzen. Ibarretrek osaturiko taldeak 3-1 irabazi zion Tolosakoari. Garaikurra eskuetan, gustura ziren txapelkunak lortutakoarekin. Giro polita izan zen Berazubín. Jende ugari joan zen norgehiagoka ikustera eta herriarrak animatzera.

Festa hasi besterik ez zen egin, ordea. Tolosa Kup-en parte hartzen duten taldeak Tolosako Abastosen elkartu ziren bazkalorduan. Mahaia, sagar-

doa, edalontziak eta kubiertoak antolatzaileek jarri zituzten; jatekoa, berriz, talde bakoitzak eraman zuen etxetik. Ederki bazkaldu ostean, Oria txaranga alaituta herri poteoa egin zuten.

Gauean, Mulambo perkusio taldearen emanaldia izan zen kalez kale. Eta DJ festa ere izan zen. Hori Abastosen egin zuten, eta Gazte Topagunean DJ ikastaroa eskaini zutenek jardun zuten.

«Gazteak herrian bertan ondo pasatzea eta denen arteko elkar ezagutza» helburu duen txapelketako festa gaueko ordu txikiak arte luzatu zen, giro ezin hobean.



Abastosen bildu ziren makina bat lagun herri bazkaria egiteko. I.T.

ondo pasa jaitzen!

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

ORAIN, ESKAINTZA HANDIA

3x2 = HAURRA DOAN
(3x bidaiatu, 2x ordaindu)

Eroski bidaiak 25 urte egiten ditu, eta hauve dugu gure oparia: **UDA HONETAN ZURE HAURRAK DOAN BIDAIATUKO DU!** Zabitza bitak, glasa-kopuru eta egunak mugatuak berriz.

*8 haurerentzako errenta eguneko gure, haurrak doan bidaiatuko du.

Salou 305€	<small>2 haurerentzako errenta eguneko gure, haurrak doan bidaiatuko du.</small>	HAURRA DOAN
Santa Susanna 292€	<small>2 haurerentzako errenta eguneko gure, haurrak doan bidaiatuko du.</small>	HAURRA DOAN
Andalucía 260€	<small>2 haurerentzako errenta eguneko gure, haurrak doan bidaiatuko du.</small>	HAURRA DOAN
Mallorca 203€	<small>2 haurerentzako errenta eguneko gure, haurrak doan bidaiatuko du.</small>	HAURRA DOAN

gure bizitza eskaintzarik onenak **25**

EROSKI bidaiak
merezi duzu

www.viajeseroski.es

XXVIII. KULTUR ASTEA ▶

Kultur Astea abian da, eta bide erdirantz

34 eskulangilek postuak jarriko dituzte gaur goizean plazan; lanean ariko dira

OLAIA ESKITXABEL

Izenak dioen bezala, hasieran aste bete irauten zuen Kultur Asteak; baina, pixkanaka, aurreko igandea gehitu zioten eta azken urteetan, hamar eguneko egitaraua antolatzen dute. Aurtengoa, XXVIII. Kultur Astea da; herenegun abiatu zuten, eta hamar egunez ez du atse-denik hartuko.

Goizeko festa antolatu dute gaurko; herriko plazan 34 eskulangileen postuak jarriko di-

tuzte. Artisauak lanean ariko dira, eta askotariko lanbideak zuzenean ezagutzeko aukera izango da: beira, zura, arropa, pilotak, apaingarriak, bitxigintza, forja, buztigintza... Horiekin guztiekin batera, Leitzako talogileak ere lanean izango dira: «Geratu gabe lanean aritzen dira. Doan, gainera, izan ere biltzen duten dirua Kultur Astea antolatzeko bideratzen baitute. Eskertzekoa da», diote Kultur Asteko antolatzaileek.

Datozen egunetako ekital-



34 postu jarriko dituzte eskulangilek gaurko azokan. JAIONE ASTIBIA

EGITARAUA ▶

GAUR

11:00. XXV. Eskulangileen erakusketa plazan.
Bitartean. Taloak eta trikitaliak.

BIHAR

20:00. *Alor lanetan, aldarioan* hitzaldia, Jagoba Errekondo paisajistaren eskutik, zinemari.

diak gauz izango dira. Bihar, esaterako, Jakoba Errekondok *Alor lanetan, aldarioan* hitzaldia eskainiko du. Ez da aste honetako hitzaldi bakarra izango, asteazkenean, ekainaren 1ean, Joseba Iriondok Iraken eta Afganistanen kazetari gisa izandako esperientziaren berri emango baitu.

Bi hitzaldien artean, Haitz Olaitzen diapositiba emanaldia izango da. Laosen, Brasilen eta Sumatran ibili zen leitzarria; horren berri emango du diapositiben laguntzarekin.

FILM LABURRAK ▶

Ordubeteko saioan, askotariko generoak dituzten Euskal Herrian ekoiztako film laburrak ikusgai

Estreinakoz antolatu duten ekitaldi horretan bost film labur eskainiko dituzte; guztiak ere, euskarazkoak: 'Basurdea', 'Amuak', 'Ostertz', 'Amnesiak' eta 'Ilbera' izenekoak, hain zuzen

OLAIA ESKITXABEL

Euskal Herrian ekoiztako film laburren emanaldia antolatu dute XXVIII. Kultur Astearen baitan ostegunerako, ekainaren 27an. Film laburrak herriko zineman ikusi ahal izango dira: 20:00etatik aurrera izango dira eta saioak.

Estreinakoz antolatu dute aurten film laburren emanaldia: «Taldekide batek pro-

posatu zuen ideia, eta zerbait berezia iruditu zitzaigun. Ne-guan zehar luzemetriak eskaintzen dituzte, baina film laburrak ez; eta beno, Kultur Astearen eskaintza hori egitea berezia iruditu zitzaigun», azaldu dute antolatzaileek.

Aukeratutako filmenguz, «saioan eskainiko diren film laburrak Euskal Herrian egindakoak» izango direla jakinarazi dute. Honako film la-

burrak aukeratu dituzte: *Basurdea* (Ane Muñoz), *Amuak* (Koldo Almandoz), *Ostertz* (Iñaki Beraetxe eta Iñigo Kintana), *Amnesiak* (Angel Bur-gaña) eta *Ilbera* (Santi Urrutia).

Azken urteetan, hain zuzen ere 2002tik 2004ra bitartean egindako film laburrak dira aukeratu dituztenak. *Basurdea* eta *Ilbera* 2002an egindakoak dira; eta, *Amuak*, *Ostertz*,

Amnesiak eta *Ilbera*, berriz, 2004koak.

Ordubete inguru iraungo du film laburren saioak; izan ere, eskainiko dituztenen arteko luzeena ez da hamabost minututara heltzen. Askotariko generoak eta gaiak lantzen dituzten film laburrak ikusteko parada izango dute saiora bertaratzen diren herritarrek: fikzioa, sormenezko dokumentala, drama, komedia...

FILM LABURRAK ▶

'BASURDEA'

Zuzendaria. Ane Muñoz.
Aktoreak. Anartz Zuazua, Xinboren Alkain eta Ernesto Barrutia.
Musika. Fermin Muguruza.
Urtea. 2002.
Iraupena. 15 minutu.

'AMUAK'

Zuzendaria. Koldo Almandoz.
Aktoreak. Kandido Uranga eta Lucia Quintana.
Urtea. 2004.
Iraupena. 9 minutu.

'OSTERTZ'

Zuzendaria. Iñaki Beraetxe eta Iñigo Kintana.
Aktoreak. Josu Manterola, Iñaki Bergara, Olatz Beobide, Paco Sagarzazu, Aranxa Izeta, David Errasti eta Carlos N'Gema.
Urtea. 2004.
Iraupena. 15 minutu.

'AMNESIAK'

Zuzendaria. Angel Bur-gaña.
Aktoreak. Mikel Tello, Haritz Elizegi eta Peru Almandoz.
Urtea. 2004.
Iraupena. 6 minutu.

'ILBERA'

Zuzendaria. Santi Urrutia.
Urtea. 2002.
Iraupena. 15 minutu.
Generoa. Sormenezko dokumentala.

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ mobila ▶ emaila



Jose Migel Leunda Otegi

JAUNA

Maiatzaren 27an hil zen kristaui Tolosan, 85 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Bere animaren zuzendaria: Inozentio Urbistondo; emaztea: Maria Dolores Saizar Irarzabal; seme-alabak: Jose Maria (Axun Apalategiren alarguna), Juan Ramon eta Anjeles Iztueta, Rafael eta Isabel Aiausti, eta Justo eta Jesus; bilobak: Fausto, Eñaut, Nestor, Jon, Ixiar, Mikel, Daniel eta Xabi; koinatu-koinata: Eskolastika Ezeiza (Fausto Leundaren alarguna), Maria Ascension Saizar (Ignazio Errezolaren alarguna), Justo Saizar eta Jesusa Tapia; lehengusuak, ilobak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoiz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela datorren ASTELEHENIAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN FRANTZISKO parroki elizan, egingo den hileta elizkizunerari. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Gernikako Arbola, 4
oharra ▶ gorpuztutako Tolosaldeko Funeraria
Vascongada beltzean dago igandeko arratsalderari

TOLOSA, 2005eko maiatzaren 29a

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Tabernaria. Spaniel arrazako txakur zuri-marroia galdu da Alegia, Alizo eta Amezketan inguruetan. Deitu telefono hauetara: 609 15 48 53 edo 619 92 27 35.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Esperientzia duena. Interesatuak deitu: 675 70 11 78 telefono zenbakira.
Zerbitzaria. Tolosaldean zerbitzaria

behar da asteburuarako. Deitu: 677 32 99 34.

Ettxeko lanak. Pertsona bat behar da 9:00etatik 13:30era etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko. Deitu telefono honetara: 625 70 50 59.

SALGAI

Furgoneta. California furgoneta salgai. 943 087486.
Autokarabana. Busnes (Fiat Bucato) markako sei plazako autokarabana. 23.000 km. Telefonoa: 675 71 79 13.

IBON ALDUNTZIN ▶ GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

«Gazteen aferen inguruan herria mugitzea da gure helburuetako bat»

Gazte Eguna egingo dute larunbatean, ekainaren 4ean, Gazte Asanbladak eta Kultur Taldeak antolatuta

OLAIA ESKITXABEL

Gazte Eguna antolatu dute larunbaterako, ekainaren 4rako, Leitzako Gazte Asanbladak eta Kultur Taldeak elkarlanean. Gazte Eguna antolatzen duten lehenengo urtea da; egun hori antolatzen lagun asko aritu dira; tartean, Ibon Alduntzin, Gazte Asanbladako kidea.

Gazte Eguna Gazte Asanbladak eta Kultur Taldeak elkarlanean antolatu duzue. Nondik sortu zen ideia?

Gazte Asanbladak, bere aldeetik, Gazte Eguna antolatzeko asmoa zuen; Kultur Astearekin bat egiten zuen. Kultur Taldekoek, beren aldetik, egun bere-rako kultur ekitaldiak pentsatu ziharduten. Gauzak horrela, gurekin harremanetan jarri eta Gazte Eguna batera antolatzearabaki genuen. Kultur Aste-ko egitarauaren baitan sartu genuen, beraz.

Bi taldeek pentsatuta zenituzten egitarauak uztartuz osatu duzue orduan larunbaterako, ekainaren 4rako, egitaraua?

Halaxe da. Kultur Taldeak bertso-poteoa, afaria eta perkusio taldea antolatzeko asmoa zuen eta gu antzerkia, hormirudia, afaria eta kontzertua antolatzeko asmotan genbiltzan. Azkenean, ekitaldi guztiak mantendu ditugu eta afaria antolatzearen ardura Kultur Taldeak hartu du. Egia esan, oso ondo moldatu gara elkarlanean.

Zein asmorekin antolatu duzue Gazte Eguna?

Herriko gazteen eskaerak eta beharrak ezagutaraztea eta zabaltzea da Gazte Egunarekin lortu nahi dugun erronketako bat.

Gaztetxearen beharra eskaeraren artean aurkitzen da, ezta?

Guretzat ez da nahikoa hiru hilabetez behin ekitaldiak antolatzeari. Nolabait esatearren, Leitzako gazteak kale gorrian gaude eta Gaztetxe bat behar dugu; hori da daukagun afere-

tako bat, eta hori aldarrikatu nahi dugu Gazte Egunean. Gazteen aferen inguruan herria mugitzea da, beraz, gure helburuetako bat.

Antolatzen den lehenengo urtea izateko zein da jendearen aldetik espero duzun erantzuna?

Askotariko ekitaldiak antolatu ditugu: antzerkia, hormirudia, bertso-poteoa, herri-afaria eta kontzertuak. Erantzuna tamainakoa izatea espero dugu. Jende gehiena herri-afarian bilduko da. Izan ere, aurreko urteetan Kultur Taldekoek antolatu dituzten afarietan herritar asko izan dira eta guk antolatutako afarietan ere mugimendu handia somatu izan da. Bi taldeek batera antolatzen dugun lehenengo afaria da, eta, beraz, jende asko espero dugu.

Afariako txartelak erosteko ipurdia mugitu behar, orduan.

Jendeari afariarako izena lehenbailehen emateko eskatu nahi diogu; izan ere, hainbeste jende izanda gutxi gorabeherako bat jakitea garrantzitsua da. Afaria joateko asmoa dutenak



JAIONE ASTIBIA

ERRONKAK

«Gazteen eskaerak ezagutaraztea eta zabaltzea da Gazte Egunean lortu nahi dugun erronketako bat»

bizkor ibiltzea eskertuko genuke.

Gazte Egunerako gonbidapena egizu.

Gazte Eguna izanda ere, edonork har dezake parte; herritar guztientzat irekita daude eki-

PARTEHARTZEA

«Gazteak garelako eta kulturaz busti nahi dugulako ekitaldi guztietan parte hartzea eskatzen dugu»

taldiak eta, beraz, bertan parte hartzeko gonbita luzatuko nieke. Larunbata 16:30ean abiatuko da Bele-bizi taldearen *Ke tokiak* antzerki emanaldiarekin; bereziki gazteei gonbidapen berezia luzatu nahi diegu: Gaz-

GAZTETXEA

«Gazteak kale gorrian gaude eta Gaztetxe bat behar dugu; hori ere aldarrikatu nahi dugu Gazte Egunean»

teak garelako eta kulturaz busti nahi dugulako egunean zehar izango diren ekitaldi guztietan parte hartzea. Haur, gaztetxo, gazte eta helduek larunbatean kalera irten eta ekitaldiez gozatzeari nahi dugu.

iragarki laburrak ▶

Kutxak eta banketxeak. Lekuak libre. Sartzeak laster. Informatu, 943 43 41 27 telefono zenbakira [deituta](#).

Peoiak, igeltseroak, soldadoreak, mantenimendukoak. Sartzeak laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzeak laster: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritzan. Informazioa doan. 943 43 41 27.

Administrari laguntzaileak. Sartzeak laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soralue,

Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 43 41 27.

Gidariak. Sartzeak laster: udaletxeak, Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundia. Informatu 943 43 41 27 telefonoan.

Harreragileak, telefonistak. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27.

Administrari laguntzaileak. Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 43 41 27 telefonora deitu.

Udaltzainak. 25 plaza libre udaletxetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

Titulazio Ofizialak

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
SARRERA: D.B.H./ HSAOL BATXILERGOA EDO ANTZERKOAK



2005-2006 Kurtsua

DISEÑO ETA KREAZIO-AHALMENEAN
OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

DISEÑO ETA KREAZIO-AHALMEN saila

- KREATIBITATE AZTERKETA
- KOLORE, MARRAZKETA ETA OSAKETA
- PUBLIZITATE DISEINUA ETA MARKETING
- IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA
- IKUSMEN KOMUNIKAZIOA

TEKNOLOGIA BERRIETAKO saila

- LOGOTIPO DISEINUA
- IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA
- MAKETAGINTZA ETA PRODUKZIO EDITORIALA
- INTERNET, WEB DISEINUA & MULTIMEDIA
- ARGAZKILARITZA DIGITALA

www.ceinpro.es



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. KZguneko tutorearen bisita izango da 10:00etatik 13:00era.

Bidegoian. Jubilatua Eguna. 10:30ean meza; ondoren, hamaiketako eta dantzariak eta jarraian bazkaria.

Ibarra. Uzturpe ikastolak bere Eguna ospatuko du ekainaren 4ean; bazkarirako txartelak salgai dira ekainaren 1a arte

Uzturpen eta Zubiaurren. **Ibarra.** Haitzetan Raju mendi taldeak Gorritira mendi irteera antolatuko du ekainaren 5ean; 09:00etan plazatik abiatu eta lau orduko ibilaldia eginda iritsiko dira. Bazkariaren ostean jokoak egingo dituzte. Izen-ematea, ohiko lekuetan. **Tolosa.** Bernardo Bidaiola *Txirrita*-ri omenaldia Uzturren 12:00etan, hil zutela 29 urte bete berri direlako.

Tolosa. XVII. San Joan Aretu Futbol Txapelketa antolatuko du Arsenal kirol elkarteak ekainaren 17tik 26ra 1995-96 eta 1993-94 urteetan jaiotako Tolosaldeko eta Leitzaldeko neska-mutilentzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24). Zozketa 15ean, 19:30ean. **Tolosa.** Udal Haur Eskolan matricula zabalik dago ekainaren 2a bitarte. Argibideak: Euskara eta

Hezkuntza Zerbitzua (Plaza Zaharra 6-B, 3. pisua, 3.2.atea) edo 943 69 74 53 edo 943 65 44 66 telefonoetan. **Tolosa.** Calcutako bizimoduari buruzko argazki erakusketa Aranburu Jauregian. Calcuta Ondoan eta San Bartolome misio taldeak antolatuta. **Tolosa.** San Joan jaietan egingo diren batel estropadetan parte hartu nahi duten herriak, elkarteak, taldeak... izena ematera animatzen ditu Tolosaldeko Arraun Klubak Zerkausiko instalazioetan iluntzetan, hil amaiera arte. **Tolosa.** Udal Musika Eskolak aurrematrícula epea zabalik du. 10:00etatik 13:00etara, astelehenean ostiralera.

bakarrizketa lehiaketa. Euskaraz, orijinalak eta 500-700 hitzeokoa. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro herriko lehenak. Irailaren 15a baino lehen eraman lanak Aurrerako udal bulegoetara.

MUSIKA

Villabona. Gazteberrean I. urteurrena dela eta, Jimmy Muellesen kantaldia, Gazteberrean, 20:00etan.

ZINEMA

Tolosa. *El reino de los cielos* filma, Leidor zinema aretoan. Gaur, 16:45ean, 19:30ean eta 22:30ean eta bihar eta etzi — lkuslearen Eguna—, 19:30ean eta 22:30ean. **Tolosa.** Zine-kluba: *The hole*. 19:00etan, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte. Korreo, 20. 943 67 60 13.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

Bihar
Tolosa. Tolosa. Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112

TXOLARRE IRRATIA

Bihar
 Tolosaldeko ahotsa saioa. 11:00etatik 14:00etara zuzenean; 19:00etatik 21:00etara errepikatuta: Ernioaldeko Udaltalde 21ek Ibarren egingo duen sinaketa ekitaldia; Tolosako Usabal kirolgune berria eta Emakume Pilotari ekimena; Loatzo Musika Eskolako matrikulazio kanpainak...

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Maite Gallurralde Balerdi. Lizartzako familiaren partetik, egun zoriontsu bat pasa.



URTE ASKOAN

Markel Eraso Etxeberria (Ibarra). Zorionak Markel biharko partez aitabato, amabato eta familia guztiazen partetik.



URTE ASKOAN

Idoia, gu zurekin. Iurreamendi egoitzan lanean aritzen garen guzti hauen partetik.

Loatzo **MATRIKULAZIOA**
05-06
musika eskola **IKASTURTEA**

Gaur bihar eta atzo, musikaren bidean LOATZO

Epea: maiatzak 30-ekainak 3
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan
 ADUNA: udaletxean
 ALTZO: udaletxean
 ALEGIA: udaletxean
 ZIZURKIL: Atxulondon

IBARRA: kultur etxean
 LARRAUL: udaletxean
 VILLABONA: kultur etxean
 IRURA: udaletxean

ESKAINITZA ZABALA:
 musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619